

Alkartasun batuak uztartuz

Badu abertzaleen batasunera-ko deiarren leitmotivak halako puntu anxiogeno bat. Airea eskas dudala sentitzen dut halako egoera utopikoa (?) irudikatzen saiatzen naizen bakoitzean. Nola batu zaitezke, izan ere, zeure buruarekin? Angelen zabala uste nuen nire kultura sexuala zabalagotu dit *irrumatio* delakoa ezagutaraziz –esan nahi dut wikipedian ezagutu dudala, ez dezala inork gaizki pentsatu–. Italiarazko wikipedia orri batean aurkitu dut definizioa. Orriaren izenburua “sesso orale” zen eta irakurtzen jarraitu dut bertan zerrendatzen zen ahozkotasunaren deklinabideari interesgarria iritzi.

Hona zer aurkitu dudana auto-fellatioaren definizio gisa. Uste dut harira datorrela abertzaleen batasunaz ari garela. Entzun bestela: *“Auto-fellatio e’ il sesso orale praticato da un uomo su sé stesso: una forma di masturbazione che consiste nello stimolare il proprio pene con la propria bocca e lingua. In realtà, è un atto che alla stragrande maggioranza degli uomini risulta impossibile; infatti non riesce se non vi è la giusta combinazione di un corpo snello, di una notevole flessibilità della spina dorsale, e di una sufficiente lunghezza del pene, necessari per compiere questo atto”*.

Itzulpenik behar baduzue horra nire gutxi-beherakoa: auto-fellatioa gizon batek bere buruarekin praktikatzen duen ahozko sexu jarduera da: masturbazio mota bat da zeinetan ahoaz edo mihiaz norberaren zakila estimulatu baita. Egia esan, gizonezko gehieni ezinezkoa zaien ekintza da; izan ere ezin lor daiteke halakorik ez badira egokiro konbinatzen gorputz malgutasuna, bizkarrezurraren tolesgarritasun handia eta zakilaren luzetasun nahikoa.

Zuen esku uzten dut erabakitzea hiru baldintza hauetatik zein falta zaigun abertzaleoi gure behin-betiko batasuna bermatzeko.

Garbi daukadana da badela sexu jarduera kilika-garriagorik web orriak proposatzen duen zerrendan. Adibidez *mormoratore* izen



DANI BLANCO

Ur Apalategi

Basterretxea

Errro

iradokigarria daramana, zeina fellatioaren aldaki txit kuriosa baita: *“chi riceve la fellatio o il cunnilingus può trovare piacevole se chi esegue queste pratiche mormora o canta durante l’atto. Questo effettivamente rende la bocca come un vibratore, oltre a ciò la bocca ha un lubrificante incorporato”*.

Honelako zerbait litzateke: fellatioa edota cunnilingusa jasotzen duenak atsegina aurki lezake –nola ez du ba aurkituko!– ahoa darabilenak sexua miatzatu bitartean marmarikatuta ala abesten baldin badu. Abesteak, izan ere, ahoa kontsoladore edo bibragailu bihurtzen du, eta horrez gain berezko lubrifikagailuduna.

Irudika ezazue orain abertzalea ez den norbaitek egingo lizuekeen aho oparia “Gora ta gora Euskadi” marmarikatuz. Ez al da auto-fellatio akrobatiko bezain arriskutsua baino perspektiba pozgarriagoa? Zuk besteari bere gustuko kantu batekin erantzun zeniezaioke, noski.

Josiren galderari erantzun zuzen bat eman behar banio hau litzateke: gizartea sistema dialektiko gisa ulertzen badugu, abertzaleen batasuna ez dago ekintza ofizial edo sinboliko baten bitartez zigitatu beharrik. Ikuspegi orokor batetik begiratuta, jadanik eta uneoro existitzen den errealtate objektiboa da. Euskal Herriik urrunduz gero segituan “ikusten” den zerbait. Besterik da egunerokoan eta “gure” arteko hurbileko tratuan haserreak eta urradura sakonak egotea. Baina ikuspegi makro-politiko batetik abertzale ona eta gaiztoaren bikotea osatzen dugu abertzale demokrata-kristau eta abertzale terrorista-paganook. Polizia ona

eta gaiztoaren antzeko bikote bat finean. Norbaiti inoiz bururatu al zaio pentsatzea polizia ona eta gaiztoa ez zudenik “batuta”? Bestalde, eta bukatzeko, uste dut askoz ere numero erakargarriagoa dela horrela bereizita abertzaleok aurkezten duguna, eta agian eraginkorragoa, salbuespenak salbuespen. ■



Ikuspegi makro-politiko batetik abertzale ona
eta gaiztoaren bikotea osatzen dugu abertzale
demokrata-kristau eta abertzale terrorista-paganook.
Polizia ona eta gaiztoaren antzeko bikote bat finean

